

Denek jakin dezaten ematen da aditzera. Hona hemen kontuan hartu beharreko zenbait ohar:

Interesdunak hamabost egun ditu egoki jotzen dituzten alegazioak, agiriak edo argibideak aurkezteko, baita froga aldia irekitzeko eskaera egiteko eta egoki irizitako frogak proposatzeko ere.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko abenduaren 21a.– Ingurumen zuzendaria, JUAN JOSÉ YÁRRITU RUIZ DE GORDEJUELA.

Espedientea	Titularra/Bermatzailea	NANA	Data	Hautsitako araua
75/09	MARIA PAZ GAMAZO ARGUELLO	12.175.243-D	18/11/09	76.3.c)

Lo que se hace público para conocimiento de la interesada con la siguiente advertencia:

La interesada dispone de un plazo de 15 días para aportar cuantas alegaciones, documentos o informaciones estimen convenientes y para solicitar la apertura de un período probatorio y proponer los medios de prueba que considere adecuados.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de diciembre de 2009.– El Director de Medio Ambiente, JUAN JOSÉ YARRITU RUIZ DE GORDEJUELA.

Expediente	Titular/Garante	D.N.I.	Fecha	Precepto infringido
75/09	MARIA PAZ GAMAZO ARGUELLO	12.175.243-D	18/11/09	76.3.c)



ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ADMINISTRACIÓN LOCAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA



Udalak

ARAMAIO

8691

Aramaioko Udaleko euskararen ordenantzari behin-betiko onarpena.

Aramaioko Udalbatzak, 2009ko uztailaren 29an egindako bilkuran, Aramaio Udaleko Euskararen Ordenantzari hasierako onarpena eman zion. Ordenantza honi buruzko iragarkia jendaurrean egon den bitartean horren aurkako inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, ordenantza behin betiko onartu da. Hona hemen testua oso-osorik:

ARAMAIOKO UDALEKO EUSKARAREN ORDENANTZA

0. SARRERA

Gure herrian bi hizkuntzak erabil daitezke eraginkortasun eta balio juridiko osoarekin, mota guztietako harreman publikoetan zein pribatuetan. Aramaio Udalak biztanle guztiei, oro har, bermatu eta errespetatu behar dizkie euron hizkuntza-eskubideak, hizkuntza dela eta inolako diskriminaziorik egitea ez baita onartzen. Hala ere, Ordenantza hauen artikulatuan ez da hizkuntza ofizial gisa gaztelania erabiltzeko dagoen eskubidea garatzen. Izan ere, euskararen normalizazioa du helburu bakar, hau da, eraginkortasunez bermatzea Aramaio berezko hizkuntzaren erabilera erreala eta ez bakarrik teoriako herritarrek bi hizkuntza ofizialen artean aukera egin dezaketenean.

Modu berean, Ordenantza hauek adierazten dute Udal Administrazio barruko lan-harremanei dagokienez eta baita administrazio instituzionalerako nahiz bere menpeko sozietate guztietakoei ere, lan-hizkuntza euskara dela (baldin eta bertan lan egiten duen pertsonalak dagokion lanpostuari zor zaion hizkuntza-eskakizuna eskuratu badu).

Beraz, Euskararen Udal Ordenantza hauen aplikazioa hauek zehaztu, osatu eta Aramaio Udaleko Ohiko Udal Batzarrak onartu eta hurrengo egunetik hasiko da, betiere aramaioarren hizkuntza-eskubideak bermatu eta euskararen normalizazio osoa lortzeko helburuaz.

1. XEDAPEN OROKORRAK

1.1. Euskararen ofizialtasuna

Euskara Euskal Herriaren nazio-hizkuntza da eta, beraz, Euskal Herriaren berezko hizkuntza izanik, Aramaio udaleko eta Erakunde Autonomoetako eta udalerriko hizkuntza ofiziala da lehentasunez.

Horrenbestez, euskara Aramaio udalaren eta udalaren menpe dauden beste erakunde publiko guztien ohiko hizkuntza da eta herritarrek jardun publiko zein pribatuan bereizkeriarik gabe erabiltzeko eskubidea dute.

Municipios

ARAMAIO

8691

Aprobación definitiva de la ordenanza del euskara del Ayuntamiento de Aramaio.

El pleno del Ayuntamiento de Aramaio, en sesión celebrada el 29 de julio de 2009, aprobó inicialmente la ordenanza del euskara del Ayuntamiento de Aramaio. Durante la exposición pública del anuncio referente a la ordenanza no se ha presentado ninguna reclamación contra la misma, que en consecuencia ha quedado aprobada definitivamente. A continuación se transcribe el texto completo:

ORDENANZA DEL EUSKARA DEL AYUNTAMIENTO DE ARAMAIO

0. INTRODUCCIÓN

En nuestro municipio pueden utilizarse las dos lenguas con plena validez y eficacia jurídica en todo tipo de relaciones, tanto públicas como privadas. El Ayuntamiento de Aramaio debe garantizar y respetar los derechos lingüísticos de todos los habitantes del municipio; la discriminación por motivo del idioma es inadmisibles. Sin embargo, en el artículo de la presente ordenanza no se desarrolla el derecho existente a usar el castellano como lengua oficial. Efectivamente, el único objetivo de esta ordenanza es la normalización del euskara; es decir, garantizar efectivamente el uso real, no sólo teórico, de la lengua propia de Aramaio cuando los ciudadanos puedan elegir entre las dos lenguas oficiales.

Asimismo, la presente ordenanza establece que el euskara es la lengua de trabajo tanto en las relaciones laborales dentro de Administración Municipal como en las relaciones con las administraciones institucionales y todas las sociedades que dependen de aquella (siempre que el personal haya superado el perfil lingüístico que corresponda al puesto).

Por tanto, la presente Ordenanza Municipal del Euskara, una vez haya sido definida y completada, comenzará a aplicarse a partir del día siguiente a su aprobación por parte de la Asamblea Ordinaria del Ayuntamiento de Aramaio, con el objetivo de garantizar los derechos lingüísticos de los vecinos de Aramaio y de conseguir la normalización plena del uso del euskara.

1. DISPOSICIONES GENERALES

1.1. Oficialidad del euskara

El euskara es la lengua nacional del País Vasco. Por tanto, siendo como es la lengua propia del País Vasco, es la lengua oficial y prioritaria del Ayuntamiento de Aramaio y de sus organismos autónomos.

Así pues, el euskara es la lengua habitual del Ayuntamiento de Aramaio y de todos los organismos que de él dependen, y los ciudadanos tienen derecho a utilizarla de manera pública y privada sin sufrir por ello ningún tipo de discriminación.

Herritarren euskara ezagutu eta erabiltzeko eskubidea ukaezina da.

1.2. Aplikazio esparrua

Aplikazio orokorra izan dezaten, Ordenantza hauetako xedapenen arabera erabiliko dute euskara Aramaioko Udalak eta bere erakunde Autonomoek, bere barruko funtzionamenduan, nola herritarrekiko harremanetan, baita organismo eta erakunde guztiekiko harremanetan ere, euskararen ezagutza bermatzea eta erabilerari lehentasuna ematea normalizazioaren azken helburua izanik.

Udalaren eskumeneko zerbitzu batzuk hirugarrenek egiten badituzte, edozein dela ere horretarako kudeaketa modua, haietan ordenantza hau aplikatuko da.

1.3. Udal zerbitzuetako lan-hizkuntza

Euskara Aramaioko Udal Administrazioaren menpe dauden udal-zerbitzu guztietako lan-hizkuntza izango da. Era berean, herritarrek nahiz udal-langileek berdintasunezko tratua jaso dezaten eta euskara normaltasun osoz erabil dezaten, lehentasunezko tratamendu berezitua emango dio Aramaioko Udalak euskarari.

1.4. Diskriminaziorik eza hizkuntza dela-eta

Aramaioko udal-zerbitzuek herritarrei harrera egiterakoan eta emandako erantzunetan ez dute inor diskriminatuko hizkuntza dela-eta. Herritarrek euskara erabiltzen badu udal-langileekin harremanetan jartzeko, euskara hutsez jasoko du erantzuna ere, eta bestela hizkuntza bietan.

1.5. Hizkuntza-eskubide orokorrak

a. Udalarekin, azpikontrataturako enprekin eta bere menpeko organismo guztiek inoiz ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izateko eskubidea, zerbitzu edo erakundearen izaera juridikoa, publikoa ala pribatua den formalki kontuan hartu gabe eta zerbitzuaren kalitatean murrizketarik izan barik.

b. Udalaren eta bere menpeko erakundearen edo sozietateen jakinarazpenak nahiz argitalpenak euskaraz jasotzeko eskubidea. Baita komunikabideen bitartez Udalak argitara ematen dituen berri eta xedapenak ere.

c. Ogasun publikoak diruz lagundutako udal-ekintza sozial, kultural eta aisialdiko guztiak, udalerriko berezko hizkuntza den aldetik, euskaraz izan daitezkeen eskubidea. Edo, gutxienez, euskarari lehentasunezko tokia ematea.

d. Udaleko edozein batzarretan euskaraz egiteko eskubidea.

e. Aramaioarrek Udalarekin eurek aukeratutako hizkuntza ofizialean jardun dezaketenez, Udalarekin harremanak euskara hutsean eduki nahi duten herritarren aukera bermatzeko neurri egokiak hartuko ditu Udalak; horietan lehena, aukera hori egin dezan herritar multzoa identifikatzea izango da. Udalarekiko harremanean euskara hutsean zuzenduko zaie Aramaioko Udalak.

f. Hizkuntza-eskubideak hezkuntzan, osasun arloan, justizia arloan, funtzio publikoen jardueran pribatuan, posta zerbitzuan.

g. Nomenklatura eta toponimia. Euskaraz ipiniko da Aramaioko udalerriko kale, errepide, auzo, mendi, erreka eta ubideen nomenklatura ofiziala; baita, oro har, bertako toponimo guztiena ere, baldin eta euron jatorrizko deiturak beste hizkuntza bati dagozkionak ez badira.

2. UDAL ADMINISTRAZIOAREN MENPEKO PERTSONALA

2.1. Derrigorrezko hizkuntza-eskakizunak Administrazioan

a. Funtzio publikoari dagokion legediaren arabera, baita legedi hori garatzen duen araudiari jarraituz ere, Udal Administrazioaren zerbitzuan jarduten duten langile-zerrendan, bertako lanpostu guztiei derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna esleituko zaie, ondoko helburuarekin: administrazio unitate guztiek euskaraz lan egin eta zerbitzua euskaraz eman ahal izatea.

b. Udal Administrazioaren zerbitzuan jarduten duten langile guztiek euri egokitutako hizkuntza-eskakizuna egiaztatu beharko

El derecho de los ciudadanos a conocer y usar el euskara es irrenunciable.

1.2. Ámbito de aplicación

Para la aplicación general de las disposiciones de esta ordenanza, el Ayuntamiento de Aramaio y sus organismos autónomos se atenderán en el uso del euskara a lo establecido en ellas, tanto en su funcionamiento interno como en las relaciones con los ciudadanos, así como en las relaciones con todo tipo de organismos e instituciones. El objetivo final de la normalización será garantizar el conocimiento del euskara y priorizar su uso.

En caso de que algún servicio competencia del Ayuntamiento sea prestado por terceros, sea cual sea la forma de su gestión, esta ordenanza habrá de aplicarse en dicho servicio.

1.3. Lengua de trabajo de los servicios municipales

El euskara será la lengua de trabajo en todos los servicios que dependen de la Administración Municipal de Aramaio. Asimismo, el Ayuntamiento de Aramaio dará un tratamiento preferente al euskara, con el fin de garantizar que tanto los ciudadanos como los empleados municipales reciban un trato igualitario y puedan utilizar el euskara con plena normalidad.

1.4. Evitar la discriminación por motivos lingüísticos

En la atención a los ciudadanos, los servicios municipales de Aramaio no discriminarán a nadie por motivos lingüísticos. Quienes se dirijan en euskara a los empleados municipales serán atendidos en euskara, o en las dos lenguas oficiales.

1.5. Derechos lingüísticos generales

a. Derecho a relacionarse en euskara con el Ayuntamiento, con las empresas subcontratadas por éste y con sus organismos dependientes, oralmente y de forma escrita, sea cual sea la forma jurídica del servicio o del organismo público o privado y sin menoscabo de la calidad de la atención.

b. Derecho a recibir en euskara las notificaciones y las publicaciones del Ayuntamiento y de los organismos y sociedades que dependen de él, así como las noticias y disposiciones que el Ayuntamiento difunda en los medios de comunicación.

c. Derecho a que todas las actividades sociales, culturales y recreativas que organice el Ayuntamiento se desarrollen en euskara, lengua propia del municipio.

d. Derecho a hablar en euskara en todas las asambleas municipales.

e. Como quiera que los ciudadanos de Aramaio pueden relacionarse con el Ayuntamiento en la lengua oficial que quieran, éste adoptará las medidas oportunas en orden a garantizar la opción de los ciudadanos que deseen mantener sus relaciones con el Ayuntamiento exclusivamente en euskara. La primera de dichas medidas será identificar a quienes elijan esa opción. El Ayuntamiento de Aramaio se dirigirá únicamente en euskara a quienes opten por esta vía.

f. Derechos lingüísticos en los ámbitos de la educación, la salud, la justicia, la actividad privada en la función pública y en los servicios postales.

g. Nomenclatura y toponimia. Los nombres oficiales de las calles, carreteras, barrios, montes, ríos y corrientes de Aramaio serán en euskara, así como toda la toponimia del municipio, con excepción de aquellos topónimos cuya raíz se corresponda con otra lengua distinta.

2. PERSONAL DE LA ADMINISTRACIÓN MUNICIPAL

2.1. Perfiles lingüísticos preceptivos en la Administración

a. De acuerdo con la legislación sobre la función pública y atendiendo a lo señalado por el reglamento que la desarrolla, en la relación de puestos de trabajo de la Administración Municipal a cada puesto se le adjudicará un perfil lingüístico preceptivo, con los objetivos siguientes: que las unidades administrativas funcionen en euskara y que se pueda prestar en euskara el servicio.

b. De acuerdo con la legislación autonómica, los empleados al servicio de la Administración Municipal deberán superar el perfil

dute, dagokien lanpostua eskuratu edo euren lanpostuei lotuta jarraitu ahal izateko, legedi autonomikoarekin bat.

2.2. Udal Administrazioaren menpeko sozietateak eta erakundeak

a. Udal Administrazioaren menpe dauden edo berak sortutako sozietate eta erakunde publikoetan nahiz pribatuetan jarduten duten langileei, zera ipiniko zaie: zuzenean Aramaio Administrazioaren menpe lan egiten duen pertsonalari ipintzen zaion hizkuntza-araudi berbera.

b. Udal Administrazioaren menpeko sozietateetan nahiz erakundeetan jarduten duen pertsonalak zera egiaztatu beharko du: bere lana burutzeko eskatzen zaion euskararen ezagutza-maila egiaztatu beharko du, baita, hala badagokio, euskaraz zerbitzua emateko ezagutza-maila ere.

2.3. Zerbitzu publikoen emakidadunak edo kontzesiodunak

Emakidadun batek edo Administrazioaren zerbitzuan jarduten duen pertsonala ez denak ematen dituen zerbitzu publiko guztietan, Udalak bermatu beharko du: Udalak zerbitzuaren erabiltzaileari harrera egin eta erantzun diezaioten, ordenantza honen arabera, Udal Administrazioari eskatzen zaizkion hizkuntza-baldintza berberetan. Honetara, kontratuaren esleipena, klausula hau betetzearen menpe egongo da.

2.4. Pertsonala izendatzea eta kontratatzea

a. Funtzio publikoari dagokien legediaren arabera, baita legedi hori garatzen duen araudiari jarraiki ere, udal-administrazioaren zerbitzuan jarduten duten langile-zerrendan, bertako lanpostu orori derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna esleituko zaio, ondoko helburuarekin: administrazio unitate guztiek euskaraz lan egin eta zerbitzua euskaraz eman ahal izatea.

b. Aramaio Udalaren menpeko lanpostu bat eskuratzen duen langile orok —baita bere menpeko erakundeetakoa eta sozietateetakoa lortzen duenak ere—, Udalak benetan izendatua edo kontratatua izateko, frogatu beharko du lanpostu horren funtzioak euskaraz burutzeko gaitasuna baduela.

c. Enpresa-emakidadunetan lan egiten duen pertsonalak, edo zerbitzu publikoak emateko Udalak kontratatzen dituen enpresetakoa, bermatu beharko du: zerbitzu hori emango duela, Udal Administrazioari eskatutako hizkuntza-baldintza berdinetan.

3. EUSKARAREN ERABILERA UDAL ADMINISTRAZIOAN

3.1. Herritar eta beste erakundeekin harremana

- Programa informatikoak eta bestelako tresneria

Aramaio udaleko langileek erabili beharreko programa informatikoak eta bestelako tresneria euskaraz egongo da.

- Zerbitzu publikoetako pertsonalaren hizkuntza-betebeharrak

a. Udal Administrazioan lan egiten duen pertsonalak —baita bere erakunde instituzionaletakoa nahiz menpeko sozietateetakoa ere— euskaraz burutu behar du bere lana.

b. Udal Administrazioan lan egiten duten udal-langileek herritarrei lehenengo hitza euskaraz egin behar diete. Herritarrak euskara erabiltzen badu udal-langileekin harremanetan jartzeko, euskara hutsez jasoko du erantzuna ere, eta bestela hizkuntza bietan.

- Aramaioarren eskura dauden inprimakiak eta agiriak

a. Udal-organo guztiek herritarren eskura uzten dituzten inprimaki eta dokumentu ofizial guztiak euskaraz idatzita egongo dira.

b. Aramaioarrek eskubidea izango dute, baita ere, eurak haututako hizkuntza ofizialean udal-dokumentuak eta inprimakiak eskuratzeko.

- Administrazioen arteko harremanak

a. Udalak edo udal-organoek, euskara ofiziala den lurralde batean kokatuta dauden beste erakunde publiko batzuei bidali beharreko idazki guztiak, euskaraz bakarrik bidaliko dizkie, eta bestela hizkuntza bietan.

b. Udalak edo bere udal-organoek, beste erakunde ofizialetatik jasotzen dituzten eta gutxienez euskaraz idatzirik ez dauden idazki

lingüístico señalado para el puesto que ocupen, tanto para acceder a él como para continuar desempeñando su labor.

2.2. Sociedades y organismos dependientes de la Administración Municipal

a. A los empleados de las sociedades y organismos dependientes de la Administración Municipal y de los creados por la misma, tanto de los públicos como de los privados, se les aplicará el mismo régimen lingüístico que se aplica a los empleados directamente por la Administración.

b. Los empleados de las sociedades y organismos dependientes de la Administración Municipal deberán acreditar un conocimiento de euskara que les capacite para desempeñar su labor y, en su caso, para prestar el servicio en euskara.

2.3. Concesionarios de servicios públicos

En los servicios públicos prestados por concesionarios y empleados que no estén adscritos a la Administración, el Ayuntamiento deberá garantizar lo siguiente: que se atienda a los ciudadanos cumpliendo la presente ordenanza y teniendo en cuenta las mismas condiciones lingüísticas exigibles a la Administración Municipal. Así pues, en las adjudicaciones de contratos deberá exigirse el cumplimiento de esta cláusula.

2.4. Nombramiento y contratación de personal

a. De acuerdo con la legislación sobre la función pública y atendiendo a lo señalado por el reglamento que la desarrolla, en la relación de puestos de trabajo de la Administración Municipal, a cada puesto se le adjudicará un perfil lingüístico preceptivo, con los objetivos siguientes: que las unidades administrativas funcionen en euskara y que se pueda prestar en euskara el servicio.

b. Todas aquellas personas que accedan a un puesto de trabajo del Ayuntamiento de Aramaio o de alguna de las sociedades y organismo dependientes de él deberán acreditar un conocimiento de euskara que les capacite para desempeñar las funciones propias del puesto, en orden al nombramiento efectivo y a la formalización del contrato.

c. El Ayuntamiento deberá garantizar que los empleados de las empresas concesionarias y de las empresas que contrate para prestar servicios públicos desempeñen su labor respetando las condiciones lingüísticas exigibles a la Administración Municipal.

3. USO DEL EUSKARA EN LA ADMINISTRACIÓN MUNICIPAL

3.1. Relaciones con los ciudadanos y con otras instituciones

- Programas informáticos y otras herramientas

Los programas informáticos y demás herramientas que usen los empleados del Ayuntamiento de Aramaio deben estar en euskara.

- Obligaciones lingüísticas del personal de servicios públicos

a. El personal adscrito a la Administración Municipal y los empleados de organismo institucionales y sociedades dependientes deberán desempeñar su labor en euskara.

b. En la atención a los ciudadanos, los empleados municipales adscritos a la Administración Municipal deberán dirigirles la palabra en primer lugar en euskara. Quienes se dirijan en euskara a los empleados municipales serán atendidos en euskara, o en las dos lenguas oficiales.

- Impresos y documentos a disposición de los vecinos de Aramaio

a. Todos los documentos oficiales que los órganos municipales pongan a disposición de los ciudadanos deberán ser escritos en euskara.

b. Además, los ciudadanos tienen el derecho de utilizar documentos municipales e impresos escritos en el idioma oficial que elijan.

- Relaciones interadministrativas

a. El Ayuntamiento y sus órganos utilizarán exclusivamente el euskara en la documentación que envíen a instituciones públicas de territorios en los que el euskara sea oficial; en los demás casos utilizarán las dos lenguas oficiales.

b. En los escritos de otras entidades oficiales que reciban el Ayuntamiento o alguno de sus órganos se exigirá el cumplimiento del

guztietan, 10/1982 Legeko 8. artikulua betetzea eskatuko da, ezargarria den neurrian.

- Komunikabideekiko harremanak

a. Komunikabideetan argitaratzen diren iragarkiak euskaraz emango dira ezagutzera lehentasunez, beste hizkuntza ofizial bat erabili behar denean euskarazko mezuari lehentasuna emango zaio denbora, tamaina, kopurua eta lekua erabiliz. Era berean, komunikabideetara bidaltzen diren ohar, abisu eta informazioekin ere berdin jokatu du Aramaioko Udalak. Bestalde, Udalak komunikabideei euskarari lehentasuna ematea eskatuko die.

b. Publizitate instituzionala egiteko garaian, herrialdeko egunkari irakurriean egingo bada, euskara lehentasunez hartuko da kontuan. Kasu guztietan, euskara hutsezko iragarkiak jarriko dira herrialdeko euskarazko egunkaririk irakurriean.

c. Publizitatea egiteko garaian, euskarazko herriko komunikabideak beti hartuko dira kontuan. Era berean, euskarazko herriko komunikabideekin hitzarmenak egingo dira dirulaguntzak bideratzeko asmoz.

3.2. Barne funtzionamendua

- Udal-organoetako lan-hizkuntza

a. Udal-organo guztietako ohiko lan-hizkuntza euskara izango da, udalerriko berezko hizkuntza delako.

b. Udal-organo guztien batzarretarako deialdiak, eguneko gairerendak, mozioak, boto partikularrak eta proposamenak, baita informazio-batzordeen irizpenak ere, euren hartzaileri euskaraz jakinaraziko zaizkie. Dena dela, hala eskatzen duten udal-organoetako kideei, beraiek hautatutako hizkuntza ofizialean ere bidaliko zaie dokumentazio guztia.

c. Udal-organoetako bilerak euskaraz egingo dira. Dena dela, udal-ordezkarri aukeratu diren organoetako kideek ofiziala den edozein hizkuntza ere erabili dezakete.

- Udal-organoetako aktak

Udal-organo guztien bileretako akten jatorrizko testuak euskaraz idatziko dira. Dena dela, beharrezko jotzen denean, eskatutako hizkuntza ofizialera itzuliko dira. Akta-liburu ofiziala euskaraz idatziko da.

- Liburuak eta udal-errola

a. Euskaraz idatziko dira sarrerren eta irteeren erregistro-liburua, urteko aurrekontu-liburua, baita udalerriko gainerako liburu ofizialak ere.

b. Udaleko administrazio-erregistroan euskaraz inskribatuko dira Aramaioko Udaleko errodan arkezatutako dokumentuak, baita Udalak berak bidaltzen dituenak ere.

- Txostenak eta proiektu teknikoak

Udal-organoek eskatutako txosten nahiz proiektu tekniko guztiak gutxienez euskaraz idatziko dira.

- Aramaioarren eskura dauden inprimakiak eta agiriak

a. Udal-organo guztiak herritarren eskura uzten dituzten inprimaki eta dokumentu ofizial guztiak euskaraz idatzita egongo dira.

b. Aramaioarrek eskubidea izango dute, modu berean, eurak hautatutako hizkuntza ofizialean udal-dokumentuak eta inprimakiak eskuratzeko.

- Arauzko xedapenen argitalpena

Udal-korporazioko organoetan, arauzko xedapenak euskaraz eztabaidatuko eta egingo dira. Dagokion itzulpena egin ostean, Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialean.

- Administrazio-egintzen jakinarazpena

Aramaioko errealitate soziolinguistikoaren arabera, udaleko jakinarazpenak euskaraz egingo dira. Dena dela, bi hizkuntza ofizialak erabili ahal izango dira, kargazko administrazio-egintzak jakinarazteko, edota interesdunak Udalarri hala eskatzen dion kasu guztietan. Hartara, Administrazioarekin harremanetan jartzeko hizkuntza ofizialetako bat hobetsi duten aramaioarren errola bat antola dezake Udalak.

- Udal-bulegoetako errotulazioa

Administrazioaren zerbitzuan jarduten duen pertsonalak bakar-bakarrik erabiltzen dituen udal-bulegoen barnealdean, errotulazioa

artículo 8 de la Ley 10/1982, en la medida en que sea aplicable, así como en los escritos que se reciban sin versión en euskara.

- Relaciones con los medios de comunicación

a. En los anuncios que se difundan en los medios de comunicación se dará preferencia al euskara; cuando haya que utilizar otra lengua oficial, la versión en euskara tendrá prioridad en tiempo, tamaño, cantidad y espacio. El Ayuntamiento de Aramaio actuará de la misma forma con las notas, avisos e informaciones que se envíen a los medios de comunicación. Además, el Ayuntamiento requerirá a los medios de comunicación que den prioridad al euskara.

b. En lo referente a la publicidad institucional, en caso de que se lleve a cabo mediante los periódicos de mayor circulación del territorio, el euskara tendrá preferencia. En todo caso, en los periódicos en euskara de mayor circulación en el territorio los anuncios se publicarán sólo en euskara.

c. En cuanto a la publicidad, siempre se tendrán en consideración los medios de comunicación locales en euskara. Asimismo, se formalizarán convenios con los medios de comunicación locales en euskara con el objetivo de posibilitar subvenciones.

3.2. Funcionamiento interno

- Lengua de trabajo de los órganos municipales

a. El euskara, lengua propia del municipio, será la lengua de trabajo habitual en todos los órganos municipales.

b. Las convocatorias, órdenes del día, votos particulares y propuestas de las sesiones de todos los órganos municipales y los dictámenes de las comisiones informativas serán notificadas en euskara. No obstante, a los miembros de los órganos municipales que elijan la otra lengua oficial también se les enviará en ésta toda la documentación.

c. Las sesiones de los órganos municipales se celebrarán en euskara. En cualquier caso, los miembros de órganos elegidos para actuar como representantes municipales podrán utilizar la lengua que deseen.

- Actas de los órganos municipales

Las actas de las sesiones de todos los órganos municipales se escribirán originalmente en euskara. No obstante, cuando se considere necesario, las actas se traducirán a la lengua oficial que se requiera. El libro de actas oficial se llevará en euskara.

- Libros y padrón municipal

a. Se escribirán en euskara el libro de entradas y salidas, el libro de presupuestos anual y todos los demás libros oficiales del municipio.

b. En el registro administrativo municipal se inscribirán en euskara los documentos que se presenten al Ayuntamiento de Aramaio y los que éste envíe.

- Informes y proyectos técnicos

Todos los informes y proyectos técnicos que soliciten los órganos municipales deberán presentarse al menos en euskara.

- Impresos y documentos a disposición de los vecinos de Aramaio

a. Todos los documentos oficiales que los órganos municipales pongan a disposición de los ciudadanos deberán ser escritos en euskara.

b. Además, los ciudadanos tienen el derecho de utilizar documentos municipales e impresos escritos en el idioma oficial que elijan.

- Publicación de disposiciones reglamentarias

Los órganos municipales debatirán y redactarán en euskara las disposiciones reglamentarias. Una vez realizada la traducción correspondiente, las disposiciones se publicarán en el Boletín Oficial en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma.

- Notificación de actos administrativos

En atención a la realidad sociolingüística de Aramaio, el Ayuntamiento enviará sus notificaciones en euskara. No obstante, podrán utilizarse ambas lenguas oficiales en las notificaciones de actos administrativos gravosos, y en todo caso siempre que lo solicite el interesado. Para ello, el Ayuntamiento podrá crear un censo que refleje la relación de los vecinos de Aramaio que hayan elegido una de las dos lenguas oficiales.

- Rotulación de dependencias municipales

En el interior de las dependencias municipales que utilice en exclusiva el personal al servicio del Ayuntamiento la rotulación será

euskaraz baino ez da izango. Era berean, euskara hutsean dauden erro-
tuluak jar daitezke: udal-zerbitzuaren izenak Autonomia Erkidegoko
bi hizkuntza ofizialetan antzeko grafia duenean, edo mezuak kriptogra-
meaz bitartez ere adieraz daitezkeenean.

- Euskara bakarrik erabiliko den kasuak

Ondoren aipatzen diren kasuetan euskara bakarrik erabiliko da:

a. Euskarazko komunikazioa eskatzen duten herritarrei bidaltzen
zaizkien gutun, agiri eta jakinarazpenetan eta beraien eskariz irekitzen
diren espedienteetan.

b. Administrazio Publikoari bidaltzen zaizkien idatzietan.

c. Euskara normalizatzeko lanean ari diren enpresa, saltoki eta era
guztietako entitateei eta euskalgintzakoei bidaltzen zaizkien idatzietan.

d. Errotulu, seinale eta antzekoetan euskaraz eta gaztelaniaz
oso antzeko grafia duten hitzak idazterakoan.

e. Mezua kriptografez baliatuz adieraz daitekeenean.

f. Ezagutzera ematen den ekintzaren izaerak eta hartzaileen bere-
zitasunek hala eskatzen dutenean.

g. Kale, plaza eta edozein leku publikoren izena, bai errotuluetan,
baita izen horiek biltzen dituen kaleen izendegi ofizialean ere.

4. EUSKARAREN ERABILERA TOKI-ERAKUNDEETAN ETA BIZITZA SOZIALAREN BILAKAERAN

4.1. Udalaren menpeko toki-erakundeak

Udalari ezargaria zaion erregimen juridiko berbera ezarriko zaie
udal korporazioak bertan eratu dituen Udalaren menpeko erakundeei,
baita, hala badagokio, udal-zerbitzu publikoen emakidadun diren
enpresei ere.

4.2. Diruz lagundutako entitate pribatuak

Euskal Administrazio publikoek diruz lagundutako entitate pribatu-
tuek, edota edozein euskal Administrazio publikorekin lankidetzar-
hitzarmen bat izenpetu dutenek, Eusko Legebiltzarraren 6/2003
Legearen 39. artikulua araberak, Aramaio udal-barrutian, kontsu-
mitzaileak eta erabiltzaileak diren pertsonen hizkuntza-eskubideak
bermatu beharko dituzte:

a. Idatziz zein ahoz, gutxienez euskaraz harrera eginez eta eran-
tzunez, eta baita euren zerbitzuei buruzko informazioa emanez ere.

b. Gutxienez euskaraz errotulatuz euren lokalak eta argitalpenak.

c. Euren jarduerari dagozkion inprimakiak, oharra, dokumen-
tazioa, eskaintzak edo gainerako zerbitzuak gutxienez euskaraz eskainiz.

4.3. Interes orokorreko zerbitzuak ematen dituzten pertsona juridikoak
Interes orokorreko zerbitzuak (unibertsaltzat legez ziurtatutako
zerbitzuak edo antzeko kategoria baten arabera ziurtatutakoak) ematen
dituzten pertsona juridikoek, edo unibertsaltasun nahiz berdintasun
erregimen juridiko baten menpe dauden zerbitzuak —hau da, garraio,
telekomunikabide edo energia-zerbitzuekin gertatzen den bezala—
ematen dituztenek, Aramaio udal-barrutian, kontsumitzaileak eta
erabiltzaileak diren pertsonen hizkuntza- eskubideak bermatu beharko
dituzte:

a. Idatziz zein ahoz, gutxienez euskaraz harrera eginez eta
erantzunez, eta baita euren zerbitzuei buruzko informazioa emanez ere.

b. Euren lokalak, zerbitzuak eta argitalpenak gutxienez euskaraz
errotulatuz.

c. Euren jarduerari dagozkion inprimakiak, oharra, dokumen-
tazioa, eskaintzak edo gainerako zerbitzuak gutxienez euskaraz
eskainiz.

4.4. Enpresak eta merkataritza-establezimenduak

Aramaio udal-barrutian, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak diren
zerbitzuak gutxienez euskaraz errotulatuko dituzte, eta euren euskaraz
zuzentzen zaizkienei hizkuntza berean emango diete zerbitzua.

4.5. Udaleko hizkuntza-paisaia

Udala arduratuko da Ordenantza hauetan jasotzen diren xedapenak
bete daitezkeen, zabalik dauden udalerriko establezimendu guztiak
gutxienez euskaraz errotula daitezela lortzeko. Horretarako, udal-

únicamente en euskara. Igualmente, en los siguientes casos podrá
rotularse sólo en euskara: cuando la grafía de la denominación del
servicio municipal sea parecida en las dos lenguas oficiales de la
Comunidad Autónoma, y cuando el mensaje pueda expresarse
también mediante un criptograma.

- Sólo en euskara

En los siguientes casos sólo se utilizará el euskara:

a. En las cartas, documentos y notificaciones que se envíen a los
vecinos que hayan solicitado comunicarse en euskara, y en los expedientes
que se inicien a instancias de los mismos.

b. En los escritos que se envíen a las administraciones públicas.

c. En los escritos que se envíen a empresas, tiendas y todo tipo
de entidades que actúan en el ámbito de la normalización del euskara
y de la euskaldunización.

d. En rótulos, señales y similares cuyo texto se escriba de forma
parecida en euskara y en castellano.

e. Cuando el mensaje pueda expresarse mediante criptogramas.

f. Cuando la naturaleza del acto que se notifica y las peculiaridades
del destinatario así lo aconsejen.

g. Los nombres de calles, plazas y demás lugares públicos,
tanto en los rótulos como en el callejero oficial.

4. EL USO DEL EUSKARA EN LAS ENTIDADES LOCALES Y EN EL DESARROLLO DE LA VIDA SOCIAL

4.1. Entidades locales dependientes del Ayuntamiento

El mismo régimen jurídico aplicable al Ayuntamiento se aplicará
a las entidades dependientes creadas en el municipio y, en su caso,
a las empresas concesionarias de servicios públicos municipales.

4.2. Entidades privadas subvencionadas

Las entidades privadas subvencionadas por administraciones
públicas vascas y las que hayan suscrito convenio de colaboración
con alguna administración pública vasca, de acuerdo con el artículo
39 de la Ley 6/2003 del Gobierno Vasco, deberán garantizar los
derechos lingüísticos de los consumidores y los usuarios en el término
municipal de Aramaio, para lo cual:

a. Deberán atenderlos y responderles al menos en euskara, por
escrito y oralmente, y deberán actuar de la misma manera al informarles
sobre los servicios.

b. Deberán rotular sus locales y editar sus publicaciones al
menos en euskara.

c. Deberán ofrecer los impresos, documentos, ofertas y demás
servicios relacionados con su actividad al menos en euskara.

4.3. Personas jurídicas que prestan servicios de interés general

Las personas jurídicas que prestan servicios de interés general
(servicios universales acreditados legalmente o mediante una categoría
similar) y quienes prestan servicios acogidos a un régimen jurídico de
universalidad o igualdad (por ejemplo, servicios de transporte, tele-
comunicaciones o energéticos) deberán garantizar los derechos
lingüísticos de los consumidores y los usuarios en el término municipal
de Aramaio, para lo cual:

a. Deberán atenderlos y responderles al menos en euskara, por
escrito y oralmente; deberán actuar de la misma manera al informarles
sobre los servicios.

b. Deberán rotular sus locales y servicios y editar sus publicaciones
al menos en euskara.

c. Deberán ofrecer los impresos, documentos, ofertas y demás
servicios relacionados con su actividad al menos en euskara.

4.4. Empresas y establecimientos mercantiles

Las empresas y establecimientos mercantiles de Aramaio deberán
rotular sus servicios al menos en euskara y deberán prestar dichos
servicios en euskara a quienes lo soliciten.

4.5. Paisaje lingüístico municipal

El Ayuntamiento se ocupará de hacer cumplir lo dispuesto en
la presente ordenanza, con el objetivo de que en todos los estable-
cimientos que operan en el municipio los rótulos aparezcan al menos

erabaki bitartez egokitzen jotako diru-laguntzak finkatu ahal izango dira, euskararen erabilerearen normalizazioari buruzko 10/1982 Legearen 27. artikulua babesean.

4.6. Sustapeneko jardura publiko orokorra

Bizitza sozialaren bilakaeran, mota guztietako jardueretan euskara sustatzearen, Aramaio Udalak egokitzen jotako neurriak abiaraziko ditu.

Honen helburua da aramaioar guztiei udalerriko berezko hizkuntzan bizi daitezela erraztea. Bereziki lehenasuna emango zaie euskararen normalizazioari eta sustapenari, merkataritzako, elkarte, kirol eta kontsumo-jardueretan, euskararen normalizazioaz diharduten 10/1982 Legearen 26. eta ondorengo artikuluen arabera. eta baita kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharez diharduten 6/2003 Legearen 37. eta ondorengo artikuluei jarraituz ere.

5. UDAL AZPIEGITURA: Euskara Batzordea.

Ordenantza hau ahalik eta modurik eraginkorrenean garatzeko neurri egokiak proposatzeko, aztertze eta abiarazteko, Aramaio Udalak barne-organigrama honela osatuko du: euskara-zinegotzigoa, euskara batzordea eta hizkuntza normalkuntzarako udal zerbitzu teknikoak.

5.1. Euskara zinegotzigoa euskararen berrekurapenarekin eta normalizazioarekin zerikusia duten gai guztien ardura duen organo politikoa da.

5.2. Euskara-batzordeak udalerrian euskararen normalkuntzaren alde lan egiten duten pertsona, talde, elkarte, gizarte-erakunde eta ikastegiak hartzen ditu barnean. Batzordearen zeregin nagusia euskararen normalkuntzari eta sustapenari buruzko arloko proiektuak proposatzea, eztabaidatzea eta nola ezarri, koordinatu eta hobetu adostea da.

5.3. Udal zerbitzu teknikoak, administrazioaren eta udalaren alorretan Udalak planifikatzen dituen hizkuntz politikako neurriak antolatu, koordinatu, abiarazi eta baloratuko ditu. Era berean, euskara-zerbitzua Udalaren aholkularia izango da euskararen normalkuntzarekin zerikusia duten gai guztietan, bai soziolinguistikari bai estandarizazio prozesuei dagokienez.

6. AZKEN XEDAPENA

Araudi hau indarrean jartzen den unetik bertatik, berau aplikatzeko eta garatzeko beharrezko jotzen dituen arauak, erabakiak eta programak agintzeko eta sustatzeko eskumena izango du Aramaio Udalak, bere eskumen-eremuaren barruan.

Aramaion, 2009ko abenduaren 10ean.– Alkatea, ASIER AGIRRE MUGARZA.

ASPARRENA

8841

Araia Herriko Enparantzaren ingurunea antolatzeko ideia lehiaketa.

Udalbatzak Araia Herriko Enparantzaren ingurunea antolatzeko ideia lehiaketaren oinarri ekonomiko-administratiboak eta baldintza teknikoak agiria onartu ondoren, jendarean jartzen dira zortzi egunez Asparrengo Udalaren Erregistro Orokorrean (Herriko Enparantza, 1, Araia), interesdunek horiek aztertu eta, hala badagokio, egoki irizitako errekamazioak aurkez ditzaten.

Aldi berean, aipatutako ideia lehiaketa argitaratzen da. Dena den, lehiaketa hori atzeratu egingo da errekamaziorik aurkezten bada.

1. Erakunde esleitzalea: Asparreneko Udala.
2. Kontratuaren helburu:

Antolamendu proposamen onenaren aukeraketa hiri kalitate, ingurumenean integartzeko eta bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaren irizpideei jarraituz egingo da. Aukeraketa erabilera publikoko

en euskara. Para ello, mediante acuerdos municipales podrán establecerse las subvenciones que se consideren oportunas, al amparo de lo dispuesto en el artículo 27 de la Ley 10/1982 de normalización del uso del euskara.

4.6. Actuación pública general de promoción

El Ayuntamiento de Aramaio adoptará las medidas que considere adecuadas con el fin de promocionar el uso del euskara en todo tipo de actividades dentro del desarrollo de la vida social.

El objetivo último es facilitar a los vecinos de Aramaio el poder vivir en la lengua propia del municipio. En especial, se dará prioridad a la normalización y la promoción del euskara en las actividades mercantiles, asociativas, deportivas y de consumo, de acuerdo con el artículo 26 y siguientes de la Ley 10/1982 de normalización del euskara y el artículo 37 y siguientes de la Ley 6/2003 de derechos y obligaciones de los consumidores y usuarios.

5. INFRAESTRUCTURA MUNICIPAL: Comisión de Euskara.

Con el fin de proponer, estudiar y ejecutar las medidas apropiadas para desarrollar de manera efectiva la presente ordenanza, el Ayuntamiento de Aramaio estructurará su organigrama interno de la siguiente manera: concejalía de euskara, comisión de euskara y servicio técnico de normalización lingüística.

5.1. La Concejalía de Euskara es el órgano político que se ocupa de las cuestiones relacionadas con la recuperación y la normalización del euskara.

5.2. En la Comisión de Euskara se integran las personas, colectivos, asociaciones, entidades sociales y centros escolares del municipio que trabajan a favor de la normalización del euskara. La principal función de la Comisión consiste en proponer proyectos en el ámbito de la normalización del euskara, deliberar sobre los mismos y posteriormente acordar su aplicación, coordinación y mejora.

5.3. El servicio técnico municipal organiza, coordina, implanta y valora las medidas de política lingüística que el Ayuntamiento planifica en los órdenes administrativo y municipal. Asimismo, el servicio de euskara actuará como asesor en todas las cuestiones relacionadas con la normalización del euskara, tanto desde el punto de vista sociolingüístico como en lo relativo a los procesos de estandarización.

6. DISPOSICIÓN FINAL

A partir del mismo momento en que la presente ordenanza entre en vigor, el Ayuntamiento de Aramaio, dentro del ámbito de sus competencias, tendrá la facultad de ordenar y desarrollar las normas, acuerdos y programas que considere necesarios para su aplicación y desarrollo.

Aramaio, 10 de diciembre de 2009.– El alcalde, ASIER AGIRRE MUGARZA.

ASPARRENA

8841

Concurso de ideas para ordenación del entorno de la Herriko Enparantza de Araia.

Aprobadas por el Pleno de la Corporación las Bases económico-administrativas y el Pliego de condiciones técnicas del Concurso de Ideas para ordenación del entorno de la Herriko Enparantza de Araia quedan expuestos al público las referidas Bases y Pliego durante ocho días hábiles en el Registro general del Ayuntamiento de Aspárrena sito en Herriko Enparantza, 1, Araia, a fin de ser examinadas por los interesados y en su caso de presentar las reclamaciones oportunas.

Simultáneamente se convoca el referido concurso de ideas, si bien el proceso se aplazará cuanto resulte necesario si se formulan reclamaciones.

1. Entidad adjudicadora: Ayuntamiento de Aspárrena.
2. Objeto del concurso:

La selección de la mejor propuesta de ordenación que, por su calidad urbana, su integración en el entorno y su viabilidad técnica y económica, pueda ser tomada como base para el desarrollo de la